



<b>Izenburua</b>	<b>Berriozarko Udalaren hizkuntz politika 2007 – 2012 aldian.</b>
<b>Egilea</b>	<b>Xabier Lasa Gorraiz, Berriozarko alkatea.</b>
<b>Data</b>	<b>2012/03/23</b>

# aurkibidea

---

<b>1. Berriozarko Udala eta euskara .....</b>	<b>03</b>
<b>1.1. Berriozarko ezaugarri sozialak hizkuntzari begira .....</b>	<b>03</b>
<b>1.2. Euskararen egoera legala Nafarroan eta Berriozarren .....</b>	<b>05</b>
<b>1.3. Udalgintza eta Udalen egoera Nafarroan .....</b>	<b>06</b>
<b>2. Egindako lanak, estrategia berriak eta etorkizuneko erronkak .....</b>	<b>07</b>
<b>2.1. Euskararen normalizazioa areagotzeko estrategia instituzionala Berriozarren (2000-2007 aldia) .....</b>	<b>07</b>
<b>2.2. Norabide aldaketa erakusten duten jarduera berriak .....</b>	<b>08</b>
<b>2.3. Estrategia berriak .....</b>	<b>11</b>
<b>2.4. Erronkak etorkizunari begira .....</b>	<b>12</b>

Segituan aurkezten dugun gogoeta hau ikuspegi politiko batetik egin da. Horrek, noski, ez du erran nahi zorroztasun zientifikorik ez duenik, aldiz, oinarrian analisi soziolinguistikoak daude, baina argi utzi nahi dugu hasieratik, horrekin batera helburu eta estrategia politiko euskaltzaleak badaudela, egon. 2007tik Berriozarko Udala zuzentzen duen gobernu taldeak euskararen normalizazioa nahi du bere herriarentzat eta prest dago euskararen erabilera normalizatua bultzatzeko asmoan bere esku dauden baliabideak ezartzeko.

Txostenaren diseinuari dagokionean bi atal nagusitan bereizten da: I. *Berriozarko Udala eta Euskara*; eta II. *Egindako lanak, estrategia berriak eta erronkak* izenburua daramana. Legendetan atzeman dai-tekeenez lehen kapituluaren errealitatearen deskribapena egiten da, zerbaiten gaineko iritzia eta propo-samenak zabaldu aitzin, non gauden eta zertaz ari garen zehaztasun minimo batez ezagutu behar baita, Berriozarko datu soziolinguistikoak eta Nafarroan indarrean dagoen legeria modu xume batez baloratzen dira. Bigarren kapituluaren azken lau urte eta erdiko ibilaldia zehazten da, ahal izan den kon-krezio gehienarekin, helburuak gauzatzeko burutu den estrategia adierazi nahi dugulako, besteak beste, lan honen bidez.

## **1. Berriozarko Udala eta Euskara**

---

### **1.1. Berriozarko ezaugarri sozialak hizkuntzari begira**

Iruñerrian kokaturiko herri bat da Berriozar, hiri testuinguru batean beraz, non gaztelania hizkuntza nagusia den XVIII. mendearen bukaeratik eta frankismo ondoko urteetan gera zitekeen euskararekiko atxekimendu sentimentala eta balorazio baikorra nabarmen jaitsi ziren; erran nahi baita, 1965ean zeu-den 300 inguru berriozartarrentzat euskara aspaldi galdu izana ez zela kezkatzeko moduko kontua eta erabat ohituak eta bereganatuak zeuden erdara erabiltzera.

Demografiaren aldetik, Iruñerriko beste herri batzuetan bezala, XX. mendearen bukaeran hazkunde guztiz desorekatua eman zen; 1970etik, hogeitaz urteren bueltan, 300 bizilaguneko herria izatetik 5.000ra iragan zen Berriozar. Auzokide berri gehienak Estatuko beste tokietatik etorriak, Andaluzia eta Extre-maduratik bereziki. Geroztik, 1990.ean, Euskal Herriatik kanpoko inmigrazio horrek behin-behineko etena izan zuen nolabait baina herriak hazkunde demografikoan jarraitu zuen Nafarroako beste tokie-tan jatorria duen jendakiak hiriburuak erakarriak bertaratu zirelako eta aurreko urteotan etorritakoen seme-alabek ere bultzada handia eman ziotelako bizilagun-kopuruari. XXI. mendearen hasierarekin bigarren inmigrazio olatuaren lekuko izan gara, baina iritsi den jendea munduko beste bazterretatik heldu da oraingo honetan: Afrika, Hegoamerika eta, neurri txikiagoan, ekialdeko Europatik. Gaur egun 9.100 bizilagun inguru ditu Berriozarrek eta, hirigintzaren diseinutik datozen aurreikuspenak betetzen badira, datorren hamarkadan 12.000 bizilagun arte hazi daitekeela kalkulatu dugu.

Hizkuntz soziologiaren aldetik, euskararen belaunaldien arteko transmisioa aspaldi galduta zuen herri bat gara eta, inmigrazioa jasotzen duten toki gehienetan bezala, gure herrian ere jatorrizko kulturari eta hizkuntzari eusteko eta ongi baloratzeko joera zabala dagoen arren, aldeko sentipen horiek ez dira gero egiaztatze funtzional nabarmenez baieztatzen. Horren harira erran behar da borroka politikoetan euskararen kontrako jarrera bereziki bultzatu dela gure udalerrian hainbat alderdi politikoen aldetik, euskara etorkinaren onarpenaren eta integrazioaren kontrako zerbait balitz bezala aurkeztuz. Kontrako erreakzio gisa edo, nafar jatorria zuten herritarren artean euskararen balorazioa hazi zen eta ez dira gutxi beren integrazioa sendotzeko asmoz, euskara beretzat hartu eta ikastera animatu diren etorkinak, etorkinen seme-alabak, bereziki. Hizkuntza aniztasuna, hizkuntza desberdintasuna... Estatuko beste tokietatik etorritako jendearen kontrako eraso-tresna bat balitz bezala aurkeztua izan da gure udalerrian alderdi espainolisten aldetik, sekula ez aberastasun kultural gisa. Baina aipatutako manipulazio politikoa dela eta, Berriozarren -egoerak anitzak eta denak sail berean sartu ezinak direla jakinik-zabala da Andaluzia eta Extremaduratik etorritako bizilagunen artean euskararen kontrako jarrera; zentzu horretan alderdi espainolisten biktima ideologikoak direla ondoriozta daiteke, eta tarte batez gogortasun eta manipulazio horiek neurri batean bigunduko zirela bazirudien ere, gaur egun, Iruñerrian eman den alderdi abertzaleen bozka-igoeraren aurreko erreakzio moduan, interes politiko berarekin berriz ere piztu duten eraso politikorako tresna bilakatu dela atzeman dezakegu.

Munduko beste bazterretatik etorritako lagunen artean egoera desberdina da. Heientzat euskara ez da elementu negatibo bat, oro har, baina ez dute kontuan hartzen, ia ez direla bere existentziaz jabetzen erran genezake. Berriozarko 9.100 bizilagunetatik %18a da azken hamarkadan munduko beste herrialdeetatik etorri dena. Horiek guztiak lan eta diru bila etorri dira, sorterrietan pobrezian bizi zirelako. Hona etortzean lana eta dirua eskuratzeko baliabideak bilatzen dituzte, hegoamerikarrek hizkuntza dute: gaztelania, eta hori baloratzen dute, afrikarrek eta besteek ez dute gaztelania baina eskuratzeko ahalegina egiten dute, euskarari, aldiz, ez diote garrantzirik ematen. Erran dezakegu kanpotik etorritako bizilagun berriek ez dutela euskararekiko erakartasunik sentitzen, gaur egun, funtzionalki, gaztelania baita giza harremanetan hazteko eta lana aurkitzeko ezinbesteko egiten zaien hizkuntza bakarra; hala ere aipatzeko modukoa da normaltasunez ikusten dutela euskara eta ez direla deseroso sentitzen euskara bere inguruan erabiltzen delarik.

Gainazaletik sikiera, Berriozarko –eta bide batez Iruñerriko- ezaugarri batzuk azaldu ditut. Falta da hainbat datu ematea. Gutxi gorabehera %14a da euskaldun Berriozarren<sup>1</sup>, zifra zertxobait igo litzateke euskaldun pasiboak kontuan hartuko bagenitu. Euskaldun horietako gehienak 30 urtetik beherakoak dira (6 eta 15 urte bitartekoen artean %20 baino gehiago dira euskaldun) eta eskolan ikasi dute euskara; izan ere bilakaera polita jaso du D ereduko matrikulazioak azken hamarkadetan, irakaskuntza publikoan erabat, gure herrian ikastetxe pribaturik ez dagoelako. Erabileraren portzentajeak, jakina denez, txikiagoak dira<sup>2</sup>.

---

<sup>1</sup> Azken datu ofizialen arabera (2001) %11 ziren Berriozarren euskaraz ongi hitz egiten zutenak (%12 zailtasunez egiten zutenak). Hamar urte eta gero, egindako estimazioa dugu %14 datua.

<sup>2</sup> Soziolinguistika Klusterrak egindako azken Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketan jasotako datuen arabera (2006), kale erabilera %4koa da.

## 1.2. Euskararen egoera legala Nafarroan eta Berriozarren

Batzuetan hainbat sektore euskaltzaleetan aipatu izan denaren kontra, euskararen normalizazio sozialaren ikuspegitik 1986. urtean onartu eta gaur egun Nafarroan indarrean dagoen euskararen legea ez dela lege ona uste dugu udal arduradunok. Hizkuntzaren lur-eremukako bereizketa antinaturala agintzeaz landa, lege anbiguaa baita bere aplikazioan, beraz, aukera erabat irekita uzten die printzipioen eta artikuluen interpretazio murriztailea egin nahi dutenei euren asmoak betetzeko. Nafarroako Legebiltzarrak jorratzen dituen legeak aztertzeraz behartuak eta ohituak gaudenok ongi dakigu lege batek konkrezio gutxi eta ate zabal asko duelarik karta zuria ematen diela agintariei interpretazio interesatuak egiteko. Beste kasuetan, nahi delarik, Legebiltzar horretako legeak zehaztasunez josita agertzen dira, bai eskubideen betekizuna bermatzeko bai horretarako behar den finantziazioa ere segurtatzeko. Izan ere Nafarroako euskararen legeari egiten ahal zaion beste kritika gogorra eta zorrotza zera da: ez dituela baliabideak ezartzen ez finantziazioa emateko, ez aipatzen dituen eskubideak bermatuak izateko. Euskara normalizatzeko printzipio onak goraiatzeaz landa, finantziazioa eta betetzeko bermeak paratu beharko bailituzke, eta ez du horrelakorik egiten. Gaur egungo gai bat aipatuz, erraterako, gogoratu genezake euskararen legeak bere artikuluetan euskarazko komunikabideak diruz lagundu behar direla dio, baina ez dio eskubide bermatuaren izaera ematen eta ez du gutxienezko finantziatorik zehazten. Beraz, krisiaren aitzakiaz 2012ko aurrekontuen legean UPN-PSNko gobernuak hutsean utzi du komunikabide horiei diruz laguntzeko partida eta horren ondorioz hainbat irrati eta aldizkari (telebistak ere lehenago) itxiak izanen dira finantziazio faltagatik. Zertarako orduan lege hori?

Horrelakoak ikusten ditugu egunero eremu mistoan kokaturik gauden herrietan. Zererranik ez eremu ez euskaldunean kokaturik daudenei dagokienean, baina ez da hori Berriozarko kasua.

Legearen aldetik, bada, anbiguotasun legala udal arautegietan konkretatzea udaloi dagokigu eta horrela egin nahi izan zuen Berriozarkoak aspaldi. Hain zuzen ere 1996ko apirilean onartu zituen gure udalbatzak bere "euskararen ordenantzak"<sup>3</sup>. Gure eskualdean lehenbizietakoak izan ziren orduan eta aipatzekoa da hainbat gaitan ere eredugarri izan zirela. Besteak beste, ordenantzetan zehazten da hizkuntz paisaia elebiz ezartzeko araua; harreman instituzionalak eta auzokideekikoak, ahozko nahiz idatzizkoak, elebidunak izateko bermea izanzen dutela; plantila organikoa egokitzeko agindua ematen da, hain zuzen ere harreman publikoen elebitasun hori bermatu ahal izateko; euskararen ikaskuntza ere bultzatzen da, horrela euskara ikasteko barnetegi eta ikastaroen kostuaren %40a ordaintzen zaie auzoko ikasleei; eta haur eta gazteen eskolatzeari begira D ereduaren sustapena egiteko derrigortasuna konkretatzen da. Beti bezala esperientziak erakutsi digu badirela zorrotasun gehiago eskatzen duten gaiak. Erraterako ez da gutxienezko finantziatorik bermatzen, beraz, Nafarroako Gobernuarekin gertatzen den bezala, gerta zitekeen euskara bultzatu nahi ez duen udal gobernu bat osatuz gero euskara ikasteko bekak diru-laguntzarik gabe uztea edo horrelakorik. Zentzu horretan gure herriko euskararen ordenantzek egokitzapen bat behar dute konkrezioa bilatzeko tenorean, finantziazio minimo bat segurtatu beharko lukete –udal aurrekontuetako gastu orokorreko portzentaje bat, errate baterako- eta plantila organikoa ere neurri batean definitua utzi beharko lukete. Hori guztia, noski, ez litzateke beharrezkoa izanen Nafarroako Euskararen Legeak dagoeneko kontu horiek zehaztuak utziko balitu, baina ez da hori kasua.

---

<sup>3</sup> Ohartu behar da 1989. urtean, dagoeneko, Berriozarko Kontzejuak (Berriozar udalerrri bilakatu zen 1991. urtean) euskararen normalizaziorako ordenantzak argitaratu zituela. 1996. urteko testua 1989. urtekoan oinarritu zen neurri handi batean.

Egoera zein den adibide batez adierazteko aipa daiteke Berriozarren bertan 2008an gertatutakoa. Urte horretako urrian udalbatzak onartu baitzuen auzokide euskaldunen fitxategi bat egiteko erabakia, asmo guztiz zientifikoaz eta hizkuntz soziologiak horrela aholkatua; bada, kanpaina ikaragarri bat antolatu zen herrian, alderdi espainolistek bultzatuta, hiritarrak mailakatze etnikoan sailkatzeko jarduera bat zela zabaldua, naziek judutarrendako prestatzen zituzten kontzentrazio eremuekin konparaketak egin ez. Errandakoa, euskara etsai politiko gisa aurkezten dute oraindik ere alderdi espainolistek Nafarroan.

### 1.3. Udalgintza eta Udalen egoera Nafarroan

Udal bati buruz ari garenez ahalegin bat egin behar dugu udalen zeregin eta funtzioak kontuan hartzeko eta bere tokian kokatzeko, anitzetan gertatzen baita udala, instituzio hurbilena denez eta, Berriozarko kasuan bezala, administrazio publikoan euskararekiko jarrera baikorra adierazten duen bakarra izanik, hiritar batzuek ezagutza faltagatik udalari bere eskuduntzen eremua erabat gainditzen dituzten kontuak eskatzea. Ez da arraroa, halaber, balorazioak eta neurketak egiten direlarik udalaren izaera, ahalmena eta baliabideak kontuan hartu gabe gehiegizko eskakizunak egitea, are ohikoagoa bere egoera ekonomikoa kontuan ez hartzea. Ez dezala inork hau guztia aitzakia gisa har, baina, kontuan har dezala, udalaren politika konkretu bat planteatzen delarik herriaren egoera soziolinguistikoa oinarri gisa hartu behar den bezala, ezinbestekoa dela, halaber, bere eskuduntza mailaz eta bere egoera ekonomikoaz jabetua egotea, ezinezkoak zaizkionak ez eskatzeko eta soberan dauden frustrazioak ez sorrarazteko.

Horren harira erran behar dugu ez finantziarioaren aldetik, ez ahalmenen aldetik, udalok ez dugula gaur egun gure unerik hoberena bizitzen. Krisialdi ekonomikoak, batetik, eta horren erabilera politiko interesatuak, bestetik, euskara bultzatzean gastatzen diren diruak lehentasunezkoetat ez hartzeko aitzakia perfektua eskaintzen du eta demagogia interesatu handia egin daiteke euskararen normalizazioa bultzatzeko gastuari legitimazioa kentzeko. Nonbait aurrezteko euskara, berdintasuna, kultura... eta horrelako arloetatik aurreztu behar da dirua, hezkuntza, osasuna, gizarte gastuaren mesedean. Batzuk bestearen kontrakoak balira bezala. Planteamendu sinplista horiek zabaldu egin dira krisialdiarekin batera eta gero eta erabiliagoak izaten ari dira euskara bultzatzeko dirua murriztu nahi dutenen aldetik. Hagitz taktika gaiztoa da hori inolaz ere onartu ez daitekeena. Euskara eta gastu sozialak edo hezkuntza gastuak ez daude kontrajarriak, euskara ere eskubide sozial bat delako, Iruñerrian diru premia larrian dagoena.

Horrekin batera adierazi nahi dizuet udalak izan direla erakunde kaltetuenetakoa ala Nafarroako Gobernuak 2011ko defizit publikoa kontrolatzeko burutu dituen murrizketetan, nola 2012ko Nafarroako aurrekontuetan, nahiz horri hezkuntzan eta osasungintzan egin diren murrizketei eman zaion erantzun sozial bera ez zaion eman. Horrela dugu Udalen finantziarioa arautzen zuen legea aldatu egin zela azaroan eta 2011n nola 12an, Udalok 2008ko legearen arabera kobratu behar genuenaren %7 gutxiago jasoko dugula, hain zuzen ere dagoeneko finantziarioa eskasa zuen sektore batean.

Bide batez, Nafarroan tokiko mapa berria osatzeko eta udalen finantziarioa zehazteko 2012an zehar lantzen ari diren lege berrien harira sekulako zentralizazio autonomikoa emanen dela atzematen dugula erran dezakegu eta horrela gertatuz gero egoera nabarmen larritu daiteke. Horrekin zera erran nahi dut, Udalari eskatu bai, baina Udalari lagundu ere bai egin behar zaiola eta Nafarroan euskararen egoerari buruzko erantzukizunak eskatzean kontuan har dezagun ez direla berberak udalena eta Nafarroako Gobernuarena.

## 2. Egindako lanak, estrategia berriak eta etorkizuneko erronkak

---

### 2.1. Euskararen normalizazioa eragozteko estrategia instituzionala Berriozarren (2000-2007 aldia)

Azaldu denez 2007.ean alkatetza alderdi euskaltzale baten esku geratu zelarik argi eta garbi ikusi ahal izan genuen aurreko zazpi urteetan lehengo udal gobernuaren aldetik euskararen sustapena desaktibatzekeo prozesu mantso batean murgilduta ibili zela instituzioa. Oro har estrategia horrek honako praktika hauetan oinarritzen zen:

- Euskarari ospe publikoa kentzea: euskara indarkeria politikoarekin nahastea izan da, hain segur, espainolismoak gure herrian eraman duen hizkuntz politikaren ardatza, gaur egunean indarrean mantentzen duena. Edozein kontua aitzakia bihur daiteke: herriko euskaldunen datuak eskuratzeko fitxategi baten osaketa, euskarazko aldizkari batean preso izandako bati elkarrizketa egitea, “Pantxoa eta Peio” kantariak herrian kantaldi bat ematea edo D ereduko ikastetxeko ikasleek inauterietan “Nafarroako konkista” antzeztea... Hori guztia kulturaren politizazioa da eta “terrorismoa” izatera ere irits daiteke; beraz, euskaldunek egiten dutenez euskarak lotura zuzena du indarkeria politikoarekin. Argumentazio zital horrekin babesa eman nahi izan diote nolabait kultur ekitaldietan, propagandetan, aurkezpenetan... euskara erabili ez izanari eta populazioarengan *euskara = gatazka*, *erdara = bakea* dikotomia faltsua hedatzeari.
- Hezkuntza publikoan D ereduaren arrakasta geldiaraztea: oro har erabili izan dituzten taktikek (D ereduari funtzionamendu trabak behin eta berriz paratzea, Iruñean dauden eta euskarazko irakaskuntza eskaintzen ez duten ikastetxe pribatuei sekulako laguntzak ematea, euskarazko testu-liburuak desegokiak direlako aitzakiaz diru-laguntzarik ez ematea...) ez dute sobera emaitza onik eman eta D ereduak aurrera jarraitu du gero eta ikasle kopuru handiagoak erdietsita. 2005. urtetik aurrera, aldiz, estrategia aldatu dute. Orduz geroztik euskarazko eredu desaktibatzekeo ingelera erabiltzen da. Nafarroako Gobernuak kanpaina indartsu bat zabaldu du Nafarroan *Brithis* eta TIL delako eskolako hizkuntz ereduak bultzatzeko eta horiek segida izan dute Berriozar bezalako hainbat herritan. Taktika oso simplea da: ingelera gaztelaniarekin lotzen da bi hizkuntzetako trebetasuna eskainita eta biak euskarari kontrajartzen zaizkio. Horrela zera adierazi nahi da: euskaraz ikasten duten ikasleek ez dute ingelera irakaspen maila onik eskuratuko gaztelaniazko ereduaren ikasten dutenekin konparatuta. Argumentu horrek bere pisa izan du eta du gaur egun euskararekiko oso jarrera aktiboa erakusten ez duten gurasoengan.
- Euskara arlo konkretu eta itxi batera mugatzea: zeharkako gaia da euskara udalgintzan (gizartean bezala) eta udal jarduneko alor guzietan dagokie, beraz udal arlo guztietara zabaldua egon behar luke, hala kirolera nola hirigintzara, erraterako. Baina ez da hori Nafarroako Gobernuak eta haren isla diren beste anitz udalek daramaten politika. Gure udalean, eta inguruko gehienetan, euskararen erabilera alor hauetara mugatu da: hizkuntz paisaia (atzeratze progresiboan), hezkuntza, euskarazko irakaskuntza eta kultura. Kirola, berdintasuna, gizarte politika, udal polizia... euskaratik aparte geratu dira beti. Kalte handia; kontuan hartzen badugu, erraterako, kirolaren praktikak azken urteotan erdiesten ari den ospe eta zaletasuna.

- Plantila organikoetan eskubide indibidualak aurretik: jokaera horretan hainbat sindikatuen laguntzarekin kontatu dute euskararen normalizazioa eragotzi nahi dutenek. Argumentua simple bezain kaltegarria da: perfil linguistikoak definitzerakoan lanpostura aurkezten den hautagaiaren eskubideak lehenetsi behar dira herritar euskaldunen eskubideen aurretik; beraz, plaza bakoitzak helburu bakarra du eta helburu horri begira eskatu behar zaio trebetasuna hautagaiari, komunikazio dimentsioa kontuan hartzen ez dela. Lorezain lanpostu bat eskuratzeko lorezain ona izan behar du hautagaiak, baina euskara jakitea ez da beharrezkoa; udaltzain bat izateko udaltzain ona izan behar du, baina euskara jakitea ez da beharrezkoa... horrekin auzokide euskaldunek duten funtzionarioengana euskaraz zuzentzeko eskubidea eta funtzio publikorako bere burua aurkeztu nahi duenaren eskubideak kontrajartzen dira. Euskara badaki ongi dago, baino ezin zaio hori eskatu lorezain edo udaltzain lanpostura aurkezten den pertsona bati. Ikuspegi horretatik euskara jakitea meritu gisa baloratu daiteke, atzerritar hizkuntzan bezala, baina ez daiteke derrigorrezko baldintza izan.

Agerikoa da estrategia horiei jarraikiz euskara sustatzeko politikari kalte egiten zaiola eta euskararen normalizazioa nabarmen oztopatzen dela.

Baina bada oraindik euskararentzat are kaltegarriagoa den beste taktika bat: itotze ekonomikoa. Nafarroako Gobernuak 2005. urtetik ekin zion udalei ematen dien euskara sustatzeko diru-laguntza murrizteari. Urte horretan ez zegoen krisialdirik, baina "aurrekontu arazoak" delako argumentua erabili zuen jadanik. Orduz geroztik beherako bide baten kontakizuna izan da udalei dagokien diru-laguntzen banaketa, azken urteotan, krisiaren aitzakiaz, ageriko modu batez murriztu dena. Nafarroako Gobernuaren murrizketa hori, jadanik aipatu dudan bezala, paregabeko aitzakia da euskararen aldeko ez diren udalek euren partidak ere jaisteko.

## 2.2. Norabide aldaketa erakusten duten jarduera berriak

Ez dago erran beharrik 2007ko ekainean gobernu euskaltzale berria Berriozarko Udalean sartu zelarik ordura arteko euskararekiko estrategia errotik aldatzeko beharrean aurkitu zela. Lehenbiziko lana izan zen aipatu euskararen kontrako eraso horiek guztiak geldiarazi eta kontrako norabideko estrategia bat zabaltzea. Euskara arloaren ardura Alkateak hartu zuen bere gain eta batzordearen osaketa eta funtzionamendua goitik behera berritu ziren, lan batzorde egiazko bat bilakatuta. Euskara batzordera ikas-tetxeetako ordezkariak gonbidatu ziren, baita herriko erakunde euskaltzale guztiak ere. Halaber, atea irekita utzi zen nahi zuen auzokide orok euskara batzordean parte hartu ahal izateko. Orduz geroztik, euskara teknikariaren zuzendaritzak gidatuak, udalerrian aldatu eta indartu beharreko ekimenak aztertu dira euskara batzordean. Burutu den lana ekimen hauetan konkretatu daiteke era laburrean:

1. Finantziario egokia: bistan da euskara sustatzeko politikari kalte egiteko jarduerak ekonomiki itotzea dela lehen urratsa, beraz, argi zegoen finantziario egokia eman behar zitzaio eta horrela jokatu du udal gobernu berriak. Lehen urtean euskara arloko partidak %10ean igo ziren. Bidean beste udal alorretan euskarazko jarduerak burutzeko finantziarioa ere egokitu zen.



2. Euskararen ospe publikoa igotzeko jarduerak: kontu txikia iduritu arren, euskararen erabilera toki eta jarduera ospetsuetan erabiltzen bada bere jendaurreko ospea nabarmenki indartzen da. 2007tik euskarak administrazioan eta Udalaren agerpen publikoetan bigarren mailako kontu bat izateari utzi dio. Ekitaldi publikoetan udal arduradun politikoon lehen hitza normalean euskaraz izaten da jendaurrean mintzatzen garelarik eta, bai diskurtso ofizialak nola deklarazioak eta beste agerpen instituzionalak, bi hizkuntzetan egiten dira beti. Euskara hizkuntza instituzionala da ikuspegi praktikoa batetik eta herritarrek gero eta onartuagoa dute horrela jokatzea.
3. Udal langileen prestaketa egokia: horretarako plantila organikoko hizkuntz perfilak birdefinitu ziren, osotara %44ra igo zen euskara derrigorrezko baldintza gisa definitua duten lanpostuen kopurua eta gainerako lanpostu guztietan hizkuntzaren meritu gisako balorazioa egokitu zen. Bide beretik langile euskaldunen artean euskarazko komunikazioa indartzera animatu zen eta euskara ikasteko gogoia pizteko kanpainak burutu. Hainbat urtez udal langileez osatutako taldeak aritu dira euskalduntzen herriko euskaltegian.
4. Euskara kontratazioak egiteko baldintza-agirietan: euskararen normalizazioa udal esparru guztietan eta guztien bidez gauzatzeko baldintza da bideratzen diren kontratazio eta esleipen prozeduretan euskararekin lotutako baldintzak jartzea (enpresek kontratatuko dituzten langileak, euskara zerbitzu hizkuntza izateko betebeharra, euskararen presentzia komunikazio publikoetan...). Goian erran dudan bezala, euskara ere eskubide soziala da eta, ildo horretan, oso baliagarria da kontratazio publikoko prozesuetan gizarte-politikari buruzko alderdiak txertatzeko Klausula Sozialen inguruan hedatu diren irizpide eta argudioak guk ere erabiltzea. Berriozarren bide honen hasieran gaude, baina ahalegina emaitzak ematen hasi da, adibidez, herriko igerilekuetako ostatuaren kudeaketan, kontsumitzaileei informazioa emateko bulegoan edo herriko irratia kudeatzeko hitzarmenean. Lan-ildo honetan, herriko elkarte guztiek, udal diru-laguntzak jaso ahal izateko, herritarrei zabalduetako komunikazioetan euskara eta gaztelania maila berean erabiltzeko baldintza bete behar dute aspalditik. Zeharkakotasunaren ikuspuntutik, garrantzitsuena da Udaleko arlo bakoitzeko arduradunek zaintzen dutela baldintza behar bezala betetzen dutela, Euskara Zerbitzuak lan hori koordinatzen badu ere.
5. Euskara kultura arloan: herriko kultur bizitzan euskarak espazio gutxi izan du, nahiz espazio gehien izan duen tokia izan, baina oro har zaila izan da alor folklorikotik edo haurrentzakoetik haratago ateratzea. Azken urteotan haurrekiko kultur jardueretan euskarak gaztelaniaren presentzia bera du baina bere ekitaldi propioetan, aldi berean heldu euskaldunei zuzendutako jarduera batzuk abiatu dira, hala nola bertso emanaldiak, irakurle kluba, euskarazko film laburren proiektzioa urtero egiten den laburmetraien jaialdian, antzerki obrak euskaraz... Helduen mundua zaila da, oro har, selektiboagoa eta kritikoagoa baita, ez zaio aski zerbait euskaraz ematea, militantziaz haraindi kalitatea ere eskatzen du, eta batzuetan ez daiteke asetzerara iritsi.

6. Euskara hezkuntzan: hizkuntzaren eskola bidezko transmisioa oinarrizko kontua izaten jarraitzen du Berriozar bezalako herrietan. Guraso euskaldun berriak euskara transmititzeko ardatz nagusia bilakatzen ez diren bitartean, eskolaren gainera erortzen da funtzio garrantzitsu hori burutzearen lana gure herrietan. Udalak, horretaz jabeturik, modu berezi batez zaindu nahi izan ditu D eredia ematen duten ikastetxeak, lehen hezkuntzako eta haur hezkuntzako bereziki. Horregatik Udalak parte-hartze aktiboa du haurren matrikulazio garaian eta D eredia aldeko gomendioa zabaltzen du auzokideen artean. Zentzu berean D ereduko ikasleei protagonismoa ematen zaie herriko hainbat ekimen inportantetan, hala nola inauterietan, Santa Agata ospakizunean, Olentzeroren egunean, herriaren egunean, eta abar.

Hezkuntza mundutik atera gabe, Udalak ahalegin handi bat egin du 0-3 urtekoen Haur Eskola zuzenean eta modu publiko batez kudeatzeko, horrek abantailak ematen dizkiolako hezkuntza-proiektua diseinatzerakoan eta hizkuntza aniztasuna kontuan hartzen du euskarari lehentasunezko tokia emanez. Bestalde, arrakasta handia du betidanik Berriozarren Musika Eskolak, hirurehun ikasle inguruk bertan ikasten baitute, gehien gehienak haur eta gazteak, nahiz heldu batzuk ere badauden. Musika Eskolatik herriko musika taldeak osatzeko musikariak ateratzen dira, eta Berriozarren asko dira. 2007az geroztik Berriozarko Musika Eskolan ikasketak euskara hutsez egiteko aukera dago. Ikasgai orokorrak (musika hizkuntza) euskaraz nola gaztelaniaz ikas daitezke, eta musika tresna gehienak ere. Gaur egun Musika Eskolan izena ematen duten ikasle gehienek euskarazko adarra aukeratzen dute. Deskribatzen ari naizen aldi honen garaipentxo bat da, zalantzarik gabe.

7. Helduen euskalduntzea: haurrez gain helduek ere euskaldun bihurtzeko aukera izan behar dute. 1996 urtean Euskararen Ordenantzak sinatu zirelarik, hitzarmen bat sinatu zen, halaber, AEKrekin. Orduz geroztik Berriozarko Udalak euskaltegi gisa erabiltzeko instalazioak uzten dizkio AEKri eta beharrezko duen diru-laguntza ematen dio hitzarmenean zehaztuta dauden baldintza batzuen arabera. Horretaz landa euskara ikasten duten auzokideei ikasketengatik ordaintzen duenaren %40eko diru-laguntza ematen die. Ez da txikia izan AEK-k Berriozarko herriari egin dion ekarpena euskaldunen kopurua igotzean, eta hain zaila den helduen adinean, gainera.
8. Borroka instituzionala: Iruñerrian ez gaude bakarrik. Badaude, egon, gurea bezalako Udalak euskara sustatzeko politika zuzena aldarrikatu eta burutzeko prest. Asmo hori Nafarroako Gobernuako erakundeen aurrean borrokatu behar da eta horrelaxe egin dugu ordezkariak dugun "Euskarabidean" Nafar Gobernuako erakundearen. Iruñerriko udalok, eta Nafarroako beste eskualdeetakoek, ordezkariak baititugu "Euskarabidean". Berriozarko alkatea (euskara alorreko buruaren funtzioan) hautatua izan zen bere eskualdeko gainerako udalerrien aldetik (Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Barañain eta Zizur Nagusia) eskualdeko ordezkaria izateko "Euskarabidean" 2007-2011 tartean. Lan komun, bateratu eta antolatua burutu dugu orduz geroztik azken lau urteotan Nafarroako eskualdeko ordezkariok, aldaketa legalak eskatu ditugu, ekimenak bermatzeko gutxieneko finantziazioa eskatu dugu eta udalok Nafarroako Gobernuarekiko ikuspegi guztiz bestelakoak daramatzagula argi utzi dugu.

Honaino nolabait egonkortuak dauden udal ekimen garrantzitsuen zerrenda osatu dugu. Baina azken urteotan euskara normalizatzeko ekinbidea beste gizarte arlotara eramateko ahalegin berezia egin da eta hori ere bere fruituak ematen hasia da, nahiz oraindik emaitza txikia izan.

- **Euskara Natur Gelako jardueretan:** 2009an natur gela bat eraiki zen Berriozarren. Bertan ingurumen eta nekazaritzako hainbat lan burutzeaz gain, Udalak ikastaro praktikakoak ematen ditu elikadura, nekazaritza ekologikoa, lorezaintza... eta beste gaiei buruz. Azken urteotako jarduera arrakastatsuenetako izaten ari da gure herrian. Ikastaro horiek eta praktika gehienak euskaraz ere eskaintzen dira, irakasleak kontratatzeke tenorean euskaraz aritzeko gaitasuna eskatzen baitzaie eta jarduerak bi ordutegi bereizietan ematen dira, gaztelaniaz batean eta euskaraz bestean; eta ez dira gutxi izan jarduera euskaraz burutzeko izena ematen duten bizilagunak, denak helduak. Gaur egun, eragin hori Iruñerria osora zabaltzen ari da. Jarduera hauek eta euren errotzeak garrantzi nabarmena dute euskararen normalizazioa ingurumen eta hirigintzaren arlotara eramateko eta eremu horietan bere zabalera areagotzeko.
- **Euskara kirolean:** kirolaren praktikak igoera nabarmena izan du gure gizartean, oro har, azken urteotan. Gero eta lagun gehiagok, adin guztietakoek, izena ematen dute taldekako kirola nola bakarkakoa praktikatzeko; fitness, aerobik, spinning, mantentze soinketa... dira egunero gure kiroldegian helduek praktikatzen duten kirol motetako batzuk. Udala ahalegin berezi bat egiten ari da helduen kirol ikastaro bat, mementuz mantentze soinketa, euskaraz eskaintzeko. Badira euskaldun nahikoak taldea osatzeko, baina zaila izaten da ordutegi eta gustu komunak aurkitzea. Espero dezagun denborarekin errotuko den jarduera bat izatea.

Bestalde, kirolaren eremutik atera gabe baina haurrei begira, lehen saiakerak egiten hasiak gara euskara hutsez funtzionatzen duten areto futboleko taldeak sortzeko. Badaude batzuk eta esperientzia sendotze bidean dabil.

### 2.3. Estrategia berriak

Eta estrategia berriekin batera zahar eraberrituak beharrezkoak dira halaber. Izan ere ikuspegi induktibo batetik abiatuta, beharrek eman digute jarduerak finkatzeko erreferentzia eta jarduera horiek helburu orokorrak erdiesteko bidean kokatzen gaituzte. Hona hemen estrategia berri horiek:

1. **Zeharkakotasun printzipioaren aplikazioa:** euskara ez da arlo zedarritu eta besteetatik bereizia, Udaleko gainerakoetatik aparte, hori denok dakigu, baina praktikak erakusten du benetako zailtasunak daudela euskara kultura eta hezkuntza sailetatik haraindi eramateko. Konkretuki ingurumena eta hirigintza eta kirola izan dira euskararen normalizazioa gehien nabarmendu duten arlo berriak gure Udalean, ahaleginak egiten jarraitzen dugu gazterian, berdintasunean, zerbitzu anitzetan (obrak, kale-garbiketak, lorezaintzan) eta besteetan euskararen normalizazioa indartzeko.
2. **Elkarlana euskalgintzan diharduten herriko erakundeekin:** multzo bat osatzen dute, batzuk aipatzearen horra hor AEK, "Zorroka" Euskara Elkarteak, ZIBA Haur Eskolako ikasleen guraso elkarteak eta "Mendialdea" Lehen Hezkuntzako eta DBHko D ereduko ikasleen gurasoak biltzen dituenak. Oraindik ere sakondu beharra dago, baina konbentzituak gaude euskara normalizatzeko bidean bat egin behar dugula norabide berean doazen herri erakundeekin.

3. Euskararekiko indiferentziatzko jarrera erakusten duten auzokideak aldeko jarrera batera erakartzea: estrategia zehatz bat euskararen ospea eta prestigioa indartzeko helburuaz. Etorकिन artean, erraterako, ezezagutza eta desinteresa dago euskararekiko. Jarrera horren aldaketa lantzen ez bada kontrakoa bihurtzen buka daiteke epe ertainean. Estrategia hau ekintza konkretuetan gauzatu behar dugu.
4. Komunikabideak: udal irratian arautua dago euskarazko programazioak %30eko gutxienekora iritsi behar duela eta, gaur egun, kuota hori gairiditzen du. Herriko aldirkariak, udal dirulaguntza jaso nahi badute, testuaren portzentaje bat euskaraz argitaratu behar dute.

Estrategia berri hauei gehitu behar zaizkie, nola ez, hain berriak ez diren baina behar-beharrezkoak izaten jarraitzen duten beste batzuk, ezagunagoak, hala nola euskararen ospe ona publikoki zabaltzen jarraitzea, euskara irakaskuntzan zabaltzen jarraitzea, euskal arloaren oinarritzko finantziarioa bermatzea, eta abar.

## 2.4. Erronkak etorkizunari begira

1. Etorkinak euskararen munduan integratzea: euskara ikasteko interesa eta beharra haiengan piztea. Gaur egunera arte ez dugu behar den neurrian lortu. Eta ez dira gutxi euskara bat ere baloratzen ez duten etorkinak. Halaber, oso gutxi dira seme-alabak D ereduari matrikulatzen dituztenak. Antzeko zerbait gertatzen da gutxiengo etnikoekin. Konponbidea paratzeko jarduerak asmatu behar dira.
2. Udal ordenantzen eguneratze bat egin beharko zen, oraindik ere borondatez baina ez lege-beharrez egiten diren gauzei lege sostengu gehiago eta derrigortasuna emateko.
3. Finantziario egokia: Nafarroako Gobernutik finantziario egoki eta egonkor bat bermatzea. Gero udal aurrekontuetan ezaugarri berberak ukanen lukeena. Borroka instituzionalak hagitz inportantea izaten segitzen du.
4. Euskara giza harreman pribatuetatik giza harreman publikoetara eramatea: Berriozarren %15era ez da iristen euskara dakitenen bizilagun-kopurua. Hori horrela izanik, euskararen presentzia bizitza publikoan ez da normalizazio prozesua bideratzeko nahikoa eta, zalantzarik gabe, jorratzeko mundu bat falta zaigu.

Bukatzekeo gehitu nahi nuke konbentzitu nagoela datorren hamarkada honek hil ala biziko garrantzia izanzen duela Iruñerrian eta, bide batez, Nafarroan, euskara zabaltzeko eta erabilera normalizatu izateko ahaleginean. Ez dut erran nahi hamar urte hauetan behin betiko helburuak lortuko direla edo esperantza behin betiko gal daitekeela, baina bai aldi horretan egiaztatuko dela euskarak hizkuntza normalizatu gisa etorkizuna duen gure artean ala ez. Egiaren tenorean gaude.

